

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

60 milioi euroko gastua baimendu da adinekoentzako hamalau egoitzatan 625 plaza ituntzeko

Laster izenpetuko diren kontratu horiek egiten direnean, kontrataziorako "resideN" eredu berria itundutako egoitzen erdietan egongo da ezarrita dagoeneko.

Miércoles, 12 de marzo de 2014


Nafarroako Gobernuak, gaurko saioan, 60,6 milioi euroko gastua baimendu du datozen lau urteetarako, adinekoentzako hamalau egoitzatan 625 plaza ituntzeko.

Kontratu horiek datorren apirilean sinatzen direnean, kontrataziorako "resideN" eredu berria Nafarroako Gobernuarekin itundutako plazak dituzten egoitzen erdietan egongo da ezarrita dagoeneko.

Zehazki, honako hauek dira onartu den gastuaren zati bat jasoko duten egoitzak, kokatuta dauden herrien hurrenkera alfabetikoan: Erroibarko Amma Ibañeta egoitza (25 plaza), 2.712.364 euroko aurrekontua; Iruñeko Beloso Alto egoitza (22 plaza), 2.543.867 euro; Amma Betelu egoitza (25 plazas), 2.778.660 euro; Carcastillo egoitza (8 plaza), 818.097 euro; Corellako San José egoitza (28 plaza), 3.198.085 euro; Lizarrako San Jerónimo egoitza (15 plaza), 1.650.093 euro; Funesko San Miguel egoitza (14 plaza), 1.497.017 euro; Iruñeko Casa Misericordia (125 plaza), 14.174.611 euro; Azkoienko San Miguel egoitza (18 plaza), 1.878.930 euro; Valtierraiko San José egoitza (29 plaza), 3.352.709 euro, Alesbeseko Virgen del Portal egoitza (10 plaza), 1.051.032 euro. Amaitzeko, 35.382.883 euroko aurrekontuarekin, beste 306 plaza itunduko dira Amma Navarrarekin, eta Mutiloa, Oblatas eta Argarai zentroen artean banatuko dira.

Iragan abenduan, Nafarroako Gobernuak, "resideN" eredu berriaren bidez kontratatuta, beste hamabi zentrotan 462 plaza ituntzeko baimena eman zuen. Gaur onetsitakoak kontuan hartuta, guztira 26 zentrotako 1.807 plaza izango dira, eta 2018ra arteko aurrekontua 104,6 milioi eurokoa izango da.

Gaur baimendu den zenbatekoa, 60.673.155 euro, honela banatuko



Adineko bikote bat.

da: 8.186.040 euro 2014an, 10.914.720 euro 2015, 2016 eta 2017 urteetan, eta 2.278.680 euro 2018an.

Programaren ezaugarriak

ResideN programa pasa den urrian hasi zen aplikatzen, 2009tik orain arte indarrean izan den Concerdep ordezkatzeko. Bi helburu ditu: egoitzetan arreta emateko zerbitzuen sare egokia izatea, adinekoen autonomia, duintasuna, bizi-kalitatea bermatzeko baldintza ezin hobeetan, eta zentroi eredu ekonomiko bidezkoagoa eskaintzea, egonkotasuna eta lanpostuak mantentzen laguntzen duena.

Horretarako, erabiltzaile-profil berriak gehitu dira, esate baterako, mendeko sozialak izenekoak, hau da, 65 urtetik gorako adinekoak eta, mendetasun-mailarik izan ez arren gizartean baztertuta geratzeko arriskuan daudenak, familiako arazoren bat edo arazo pertsonalen bat dela eta. Pertsona horientzako plaza kopurua ez da izango plaza guztien % 5 baino gehiago zentro bakoitzean.

65 urtetik gora eta urritasunen bat dutenei ere lekua egingo zaie, borondatez, mendeko adineko baten antzeko arreta-premiak baditu. Aldi baterako plazak ituntzeko aukera ere aurreikusi da.

Amaitzeko, modulu motak berrantolatu eta sinplifikatu dira; orain bi dira: mendekoak eta mendekoak ez direnak, eta profil profesional jakin batzuen kontratazioa malgutu da (sukaldea, garbategia eta garbiketa).